



EDEBÉ GAZTE  
LITERATURA  
SARIA

**EZEZAGUNAK**  
DAVID LOZANO

**IRAKURRI  
ETA  
JAKIN**

giltza

**JARDUERAK**

**giltza**



**IRAKURRI  
ETA  
JAKIN**

**JARDUERAK**

## 1. Osatu liburuaren fitxa bibliografikoa:

Izenburua:

Egilea:

Argitaletxea:

Bilduma:

Noiz argitaratua:

Non argitaratua:

ISBN:

Orrialde kopurua:

\* Hitz hauek liburuaren kanpoko atalak izendatzeko erabiltzen dira.  
Definitu hitzok eta deskribatu zer informazio mota ageri den bakoitzean.

AZALA:

HEGALA:

BIZKARRA:

## 2. Obra irakurri ondoren:

\* Zure ustez, zergatik jarri dio egileak *Ezezagunak* izenburua?

\* Pentsatu beste izenburu bat.

\* Laburbildu esaldi bakar batean liburuaren argumentua.

\* Aztertu arretaz azaleko irudia. Zer datorkizu burura? Diseinatu beste azal bat.

**3.** Dakizunez, hiru literatura-genero nagusiak narratiba, antzerkia eta lirika dira.

- \* Definitu estilo bakoitza esaldi batez (informazioa bilatu dezakezu testuliburuetan, Interneten...).

- \* Zer generotakoa da irakurri duzun liburua? Arrazoitu zeure erantzuna

**4.** Bilatu informazioa egileari buruz: David Lozano.

- \* Datu biografikoak.

\* Obrarik garrantzitsuenak.

**5.** Obra hau izenbururik gabeko 21 ataletan banatuta dago.

\* Zer duzu nahien, eleberrietako atalek izenburua edukitzea ala ez edukitzea?  
Arrazoitu zeure erantzuna.

- \* Atal bakoitzean zer gertatzen den kontuan hartuz, pentsatu bakoitzerako izenburu bat, eta arrazoitu.

1. atala:

2. atala:

3. atala:

4. atala:

5. atala:

6. atala:

7. atala:

8. atala:

9. atala:

10. atala:

11. atala:

12. atala:

13. atala:

14. atala:

15. atala:

16. atala:

17. atala:

18. atala:

19. atala:

20. atala:

21. atala:

6. Eleberrian zenbait pertsonaia ageri dira. Bereizi protagonistak, pertsonaia nagusiak eta bigarren mailakoak

Pertsonaia protagonistak:

Pertsonaia nagusiak:

Bigarren mailako pertsonaiak:

- \* Definitu, zeure hitzak erabiliz, eleberriko pertsonaia mota bakoitzaren ezaugarriak.

PROTAGONISTAK:

PERTSONAIA NAGUSIAK:

BIGARREN MAILAKO PERTSONAIAK:

- \* Zein da eleberriko zure pertsonaiarik gogokoena, zure antzekoena? Zergatik?



- \* Obraren amaieran, «Eskerrak» atalean, egileak dio askotariko kolaborazioak behar izan dituela eta abizen pare bat ostu duela. Badakizu zer abizen diren eta zer pertsonaiarenak?

BENETAKO PERTSONA	OBRAKO PERTSONAIA

## 7. Zer pertsonaiarenak dira ezaugarri hauek?

- Mekanikari dabil tailer batean:
- Auzitegiko medikua, berrogeita hamarka urtekoa, atsegina eta zehatza:
- Ederra, indartsua, larderiatsua edo are oldarkorra. Bere lagunen babeslea:
- Interesgarria, ikasia eta burutsua. Ez bereziki galanta, baina bai erakargarria:
- Sentibera, kartsua eta ameslaria:
- Arretatsua eta intuizioduna:
- Hotza, manipulatzailea, faltsua:

## 8. Bigarren atalean, Larak eta Wildek beren literatura-gustuak komentatzen dituzte. Biak dira irakurle onak; hain zuzen ere, biek gogoko duten liburu bat erabiltzen dute McDonald'sen elkar topatzeko: *Emakume ezezagun baten gutuna*.

- \* Nor da obraren egilea? Zein da sinopsia? Aurkitu

\* Zein da zure libururik gustukoena? Egin laburpentxo bat eta azaldu ikaskideei.

9. Zortzigarren atalean, Gerardek eta Larak, mutilak proposatuta, beren gustuei buruzko inkesta bat egiten diote elkarri. Musikari dagokionez, Larak erantzuten du bere musika-talderik gogokoena Ed Sheeran dela, eta Gerardek dio bereak Muse eta Arcade Fire direla, besteak beste.

\* Jo Internetera eta bilatu ea musika-talde horiek benetakoak diren

- ED SHEERAN:

- TALDEKIDEAK:

- ESTILOA:

- JATORRIA:

- MUSE:

- TALDEKIDEAK:

- ESTILOA:

- JATORRIA:

- ARCADE FIRE:

- TALDEKIDEAK:

- ESTILOA:

- JATORRIA:

\* Bilatu abestiren bat Interneten eta entzun.

- ED SHEERAN:

<https://www.youtube.com/watch?v=2Vv-BfVoq4g>

<https://www.youtube.com/watch?v=lp-EO5I60KA>

- MUSE:

<https://www.youtube.com/watch?v=b4ozdiGys5g>

[https://www.youtube.com/watch?v=G\\_sBOsh-vyl](https://www.youtube.com/watch?v=G_sBOsh-vyl)

- ARCADE FIRE:

<https://www.youtube.com/watch?v=zC30BYR3CUk>

<https://www.youtube.com/watch?v=9oI27uSzxNQ>

\* Zer deritzezu talde horiei? Argudiatu.

\* Zure ustez, zer musika-estilo jotzen dute?

\* Bost edo sei laguneko taldetan, aukeratu gehien gustatu zaizkizuen abestietako bat eta sortu koreografia txiki bat ikaskideen aurrean antzezteko.

**10.** Hamabigarren atalean, Gerardek Frani esaten dio Lararekin geratzeko mezu-zirriborro batzuk prestatu dituela. Luis García Monteroren poemak erabili ditu, Lararekin hitzordu bat lortzeko.

\* Zer dakizu egile horri buruz? Bilatu informazioa.



- \* Aurkitu dezagun zure alderdirik sortzaileena! Idatzi bertso-lerro batzuk (6 gutxienez), norbaitekin hitzordu bat lortzeko, Gerardek egin zuen bezala. (Oharra: hitzorduak ez du zertan izan erromantikoa).

- \* Gero, idatzi pertsona horrekin geratzeko mezua. Ikaskideei irakurri, ea zer deritzoten.

**11.** Hamahirugarren atalean, auzitegiko medikuak, Carlos Millánek, hipotesizat planteatzen du hiltzailea Lara izan litekeela. Justifikatzeko, argudiatzen du Larari interesatzen zaiola gehien Jordi ez agertzea, hitzordua honda ez dezan. Hitzez hitz honako hau dio: «Gaur gauean dena ondo ateratzeko bermea behar zuen... kosta ahala kosta».

\* Zure ustez, denak balio du helburu bat lortzeko? Kosta ahala kosta?

\* Aldeztu zure iritzia ikaskideekin eztabaidatuz. (Oharra: interesgarria izan daiteke uste duzunaren kontrako iritzia aldezte).

**12.** Eleberrian, sare sozialekin nolabaiteko zerikusia duten termino batzuk ageri dira.

\* Badakizu definitzen?

*Stalkatu:*

*Jarraitzaile:*

*Nude:*

*Selfie:*

*Profil:*

*Emoji:*

*Youtuber:*

*Booktuber:*

- \* Sare sozialekin zerikusia duten zer beste termino dakizkizu? Komentatu ikastalde osoarekin.



**13.** Hamaseigarren atalean, inspektorea eta auzitegiko medikua konturatzen dira gorpua ez dela Jordi Vilarena. Izan ere, Googleko argazkietan, Jordi Vilak harro-harro erakusten ditu bere gorputza, tatuajea eta abdominalak. Aurkitu duten gorpuak, ordea, ez dauka tatuajerik. Dena den, dirudenez, hildako pertsona hori sarritan joaten zen gimnasiaora.

\* Bilatu Interneten zer onura dakartzan orokorrean ariketa fisikoak.

- \* Egin ohi duzu kirolik? Zer motatakoa? Zure ustez, zer onura dakarzkizu? Komentatu ikastalde osoarekin.

**14.** Larak eta Gerardek —eleberriko protagonistak— sare sozialen bidez ezagutzen dute elkar.

- \* Sare sozialen bateko kide zara? Zeinetakoa?

- \* Zure ustez, engainatu egin zaituzte inoiz?

- \* Zure nortasuna ordeztu duzu inoiz? Zertarako?

- \* Talde txikitan (5-6 lagun), iritziak eta esperientziak partekatu ditzakezue, eztabaida txiki bat eginez.

**15.** Elkarrizketa batean, egileak (David Lozano) honela definitu du obra: «misterio-eleberri bat da, gaur egungo gizarteak inposatzen duen bizimoduari buruzko eztabaida interesgarri bat proposatzen duena honako gai hauen inguruan: identitatea, "voyeurismo" birtuala, genero-indarkeria, segurtasuna eta bakardadea gure ohiko espazioak diren sare sozialetan».

- \* Zer deritzezu egilearen hitz horiei? Benetan inposatu egiten digute bizimodu hori ala geuk aukeratzen dugu? Azaldu zure iritzia ikaskideei

**16.** Eleberriko hilketa Sorts-eko haitzartean gertatzen da, Bartzelonatik gertu. Gerardek eta Franek diote euren santutegia dela, beren arazoak konpontzeko oasia, krisietarako antidotoa. Egiaztatu, Internetera joz, ea haitzarte hori benetakoa den eta non dagoen.

\* Zer dira haitzarteak? Zer ezaugarri dituzte?

\* Bilatu informazioa zure herritik hurbileko haitzarte ezagunen bati buruz. Deskribatu labur eta marraztu (erabili argazkiren bat, lagungarri).

- \* Zuk ere baduzu babeslekuren bat pentsatzeko eta ideiak argitzeko? Zein?

**17.** Ordenatu kronologikoki eleberriko esaldi hauek. Liburura jo dezakezu, behar izanez gero.

«Hitzordua ondo hasi da, baina ziurgabetasunaren mamua agertu da: Larak bere barruan sentitzen du, gogaikarri, hitzak diktatzen ariko balitz bezala».

«Castellek pauso batzuk egin ditu, gorpua dagoen tokira iristeko. Ez da medikua izan behar ikusiaz batera jakiteko mutil hori duela ordu gutxi hil dela».

«Bartzelonako errepikagailuetan utzitako arrastoen arabera, neskaren azken mugimenduen berri behar genuke».

«Zubitik jaitsi, eta gorpua dagoen tokira itzuli dira berriz».

«Lepoa askatu, eta poltsikoetako batetik labana bat atera du irekita».

«Jarraian, jokoan aurrera egitea erabaki du, eta elkarri galdetegi bat egitea proposatu dio Larari. Neskak onartu egin du, galdera intimoak ez egiteko baldintzarekin».

«Bat, bi, hiru, lau, bost. Ezer ez. Lara Grávalosek ez du erantzuten. Erantzungailua atera zaio».

«Badakit nora eraman duen neska bere lagun misterioitsu horrek, Jaume —baieztatu du inspektoreordeak—. Zoaz azkarrago!».

- 18.** Irakurri berriro liburuko azken atala, 21.a, eta asmatu beste amaiera bat une honetatik aurrera gertatukoari buruz: aparkalekuan daudela, Larak pentsatu du Franengandik, hau da Wilde faltsuarengandik, urruntzen ari dela. (Gutxienez, 25 lerro)

\* Irakurri zure amaiera ikaskideei.

**19.** Egin liburuaren balorazio kritiko bat.

\* Gustatu zaizu eleberria? Arrazoitu zeure erantzuna.

\* Irakurri duzu inoiz antzeko gai bat jorratzen duen obrarik? Zein?

\* Gomendatuko zenieke eleberria zure lagunei? Arrazoitu zeure erantzuna

\* Ezagutzen zenuen eleberraren egilea? Irakurri duzu haren beste libururik? Zein?  
Gustatu zitzaizun?